

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LEZAMAKO UDALAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Lezamako Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdien azterketa besarkatzen du aurrekontu, diru-sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak bi kasutan ez dituela administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak bete; horietan esanguratsuena, obra kontratu batean kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere desitxuratu izana da, esleipen prezioaren % 31 gainditzen duten aldakuntzak eginez.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketei dagokienez, Udalaren Diruzaintza Geldikina 1.177 mila euroan gehitu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio, transferentzia eta diru-laguntzen arloetan.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez jakinarazi da 2008-2010 aldian sortutako aurrezki garbia nabarmen murriztu dela itunpeko zergen diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz, zerbitzuen kostuei bere horretan eutsi zaien bitartean. Aldi honetan inbertsio arrunt gehienak emaitza arruntekin eta diru-laguntzekin finantzatu

dira eta 2010eko abenduaren 31n diruzaintza geldikin esanguratsua eta zorpetze maila txikia erakutsi du.